

## EE PSE-PSOEn sartzea

**EZER** gutxi esan daiteke Euskadiko Ezkerraren heriotza iragarriaz dagoeneko esan ez denik: 'etxe komun' sozialistak haren azken hamabost urteotako naufragio jarraikien hondarrak jaso ditu: euskal ezkerreko alderdia (EIA, Zegama, 1977), masak borroka instituzionalerako mobilizatzeko alderdia (EIA, 1979), EIA eta ETAPm-k osaturiko blokea desegin eta EPKrekin batera euskal ezkerreko bloke hegemonikoa animatu zuena (Euskadiko Ezkerra, 1982), pluralismoaren eta adostasunaren bultzatzaile eta Bake Itunaren sustatzailea (EE, 1988)... Irensteak EEko zenbait koadroni ahalbideratu die leial etsi dioten sinesmen bakarra betetzeko modu bakarra: alegia, edozein proiektu politiko praktikan jartzeko beharrezkoa dela Gobernu Autonomoan partaide izatea.

Interesgarriagoa da irenstearen gorabeherak euskal lurraldeko aztertzea. Sozialistek eta EEko koadroek egun ulerkerak bera dute, esfera pertsonalaren pribatizazioan eta esfera politikoaren profesionalizazioan oinarritua (azken hau Autonomien Estatuaren barruan maila autonomikoa gestionatzeari emana). Ikuspegi funtzionalista pragmatiko hau bateraezina da esfera publiko eta pribatuko militantzia aktiboko bizimodu batekin, bai eta ezaugarri historikotan oinarrituriko kultura politikoekin ere (Gipuzkoako ezker abertzaleko

kultura, antzinagotiko sozialismo historikoa Bizkaiko euskarrian). Irensteak, beraz, arazo gutxi sortzen du Gipuzkoan (bertan kultura abertzalea hartua baitu lehenago Euskal Ezkerrak, eta militantzia sozialistak erro historikorik ez baitu —Eibarren izan ezik—), eta orobat Araban; zailtasun handiak ditu Bizkaian, militantzia sozialista antzinakoa eta aktiboa baita Ibar Ezkerrean, EEren militante bizkaitarrek uztea esplikatzen duen gauza; eta ezinezkoa da Nafarroan. (Analisia osatzeko, kontuan izan behar da sartzeko prestago dela Euskadiko Ezkerrara EPK ohitik etorritako sektorea —banakako kasu ebeltatikoz batzuk izan ezik— ETA-ETAPm-EIAtik etorritakoa baino).

Zer ondorio izan dezake irensteak PSE-PSOeren euskaltasun aldagaiaren bilakaeran? Alderdi honek aldi ezberdinak izan ditu: euskaltasuna eta autonomismoa 1977ko Eraketa Kongresuan, antinazionalismoa 82ko maiatzeko III Kongresuaz geroztik, Garcia Danborenearen 'lerrouxismo' antinazionalista uztea 1988ko ekaineko Kongresuan... Nire iritziz, bi aldi bereizi ahalko dira etorkizun hurbilean. Lehenengoan, ur-gainezkatze sentipena izango dute —sentitzen ari dira, batez ere Bizkaian— EEko militante banakak, ehun baino gutxiago, espainiar nazionalismo sentimendua biziki sustatu eta borroka antiterrorista

bultzatu duen alderdi batean sartzean, eta honek indartu egingo du baturiko alderdiaren anti-euskaltasuna. Psikologiak aztertzen ditu erreazio hauek, gutxiengo den taldeak gehiengoak harengan proiektatzen dituen eta hark estigma moduan bizitzen dituen identitate negatiboak barnatzearen ondorio; Eriksonek dioenez, gisa honetako erreazioak gertatzen direnean, pertsona horiengan «gutxiagotasun sentimenduak eta beren buruaren aurkako gorroto morbosoa» antzematen dira (kasu honetan, beren buruaren kontrakoa baino gehiago beren iragan politikoaren kontrakoa). EAJ deskalifikatzeak eta ETA garaitu ondoren ezker abertzalerik ez izateko desioa adierazteak, programaren aurrerakinean azaldu duten bezala, horrela erakusten du. Bigarren aldirian, espero izatekoa da, pendulu erreazio bat medio, lehenengo EEko kodroetako frankok euskara menderatzeak eta 60ko eta 70eko urteetan bizi izandako esperientziek eragin dezatela gerora (militante sektore bien arteko kopuru desproporzio handiak eragozten ez badu) PSE-PSOeren euskalduntzearen aldera.

### FRANCISCO LETAMENDIA

IDAZLEA

● Erredakzioan itzulia

## Urrats berriak euskararen alde. Mainguka! (eta II)

**EUSKARA** frantsesa bezen ongi menperatzea eskatu du Hezkuntza Ministroak Parisetik. Behar bezela formatu irakasleak izatea klase elebidunetan eta behar den kopuruan.

Erabaki horiek eskola publikoak dituzte hunkitzen lehen lehehik. Eskola horietan dabilzan haurren aita amak *Ikas Bi* elkarrean biltzen dira. Eta hemengo klase elebidunak dira Frantziako zaharrenak. *Ikas Bik* zer zioen jakitea ineresgarri zen. Hain zuzen bere ikusmoldea gogoetatzeko astia izan du, joan den azarokotzat ezagutzen baitzuen ministroaren gutuna.

Bere agerkariaren azken zenbakian, *Ikas Bik* azpimarratzen du hamar urte borrokaren ondoan, azkenean, ofizialtasun bat eman diotela beren pedagogiari, orain arte ahal bezela jasana zelarik, sarrera bakoitzean kilikolo emana, hau edo hura kontra zelakotz.

Baina ez dute amentsik egiten. Ministroaren manuak gauzatzeko dirua behar da, klase elebidunak besteak baino gehiago gostatzen baitira eta nihon ez du dirurik aipatu Jac Langek!

Parisetik gure alde ufutzen baldin badu haizeak, ministroaren manuak hemen gauzatu behar dituzten arduradunak batera ez dira ikusmolde berekoak.

1986-87an guziak klase elebidunen alde ziren: inspektore, politika gizon eta denak: ikastolen arrakasta apaltzeko bide ona zi-

tzaien. Baina laster agertu da sistima batek ez zuela bestea neutralizatzen, bat bestearen osagarri zirela eta orduan, arrestak tinkatu dituzte (frenoak estutu).

Berriki Seaskarekilako hitzarmena ospe handitan izenpetua izan da. *Ikas Bi* dute orain etsai bakarra, eskola publikoetako klase elebidunetako haurren kopurua, denbora laburrik barne hirukoizteko ahala badielakotz. «Horra zer dioen *Ikas Bik*».

Berriki entzun dut Iparraldeko kultur arduradun bat erraten klase elebidunak ez direla gehiago zabaldu euskaldunen faltaz. Ez da egia ikerketak egin direlarik aita-amek klase elebidunik nahi zutenek jakiteko eskaera izan da beti, ez delarik ministroak gomendatu 'kalitatezko informazio-rik' izan gehienetan. Azkenik, iaz, behar zen egin ikerketaren ondoren lau eskoletan ireki beharko ziren klase elebidunak: batean baizik ez dute egin.

Ikaslerik ez dugula eman Euskaldunek? Hamar urte borrokatu behar izan dugu, 'Ecole Normale' irakasle eskolan sartzeko behar den DEUG diploma izan zedin. Irakaslerik ez dela aski egia da. Ez gure faltaz. Ez dutelakotz nahi izan.

Orain arte ere, nahi izan balituzte, ondoko urtean honenbeste klase elebidun ideki behar eta irakasle gai euskaradun kopuru hori sar araziko zuten irakasleen eskolan: gehienetan irakasle gai bat edo bik baizik ez zekiten euskara; eta ez, bilatu zituztela-

kotz! Hala gertatu zelakotz. Klase elebidunetako irakasleak bazterretik sartu dira, baxterretik bezela, formatuntzarik gabe. Diploma guziak zituzten batzu ez dituzte hartu beren kolore politikoa gatik, eskola 'laikoan' (?)

Eskola zenbeitetan haur gehiegi dute andereñoek. Irakasle berria behar liteke: zuzendariak ez du berririk eskatzen elebitasuna ez dezakelakotz jasan. Edo euskara ez dakiten irakasleak beren lan postua gal beldur direlakotz klase elebidunak hedatuz: irakasle euskaradunak sar arau lan postu gutiago geldituko da erdaldunentzat.

Joan den aldirian aipatzen zuen 'D' eredia eskola publikoentzat. Ez gara orain hortan. Alde batetik hemen dauden arduradunetan gehienak euskararen kontra direlakotz (eta Euskaldunak badira horietan!) Bestetik, urte parrasta bat beharago delakotz klase elebidunak eskatzen dituzten irakasle euskaradunak izateko.

Eta hori, berriz errateko, ez Euskaldunen erruz, baina hortarako bidea ez delakotz hartuz orain arte gain horietan. Nahitara.

### XIPRI ARBELBIDE

KAZETARIA

## BERRIAKZIRI



### JOSU OSTERIZ

Nafarroako EEko idazkari ohia ARGIA

«Sustrai historikoa mantenduko duen beste Euskadiko Ezkerra sor daiteke»



### LOLO RICO

Gidoigile eta errealizadorea EL PAIS

«Telebistak ama ordezkatu egin du»



### ANDONI IMAZ

Realeko jokalaria DEIA

«Ez gara Barcelona-ren beldur»



### JOSE JULIAN LERTXUNDI

Athletikeko lehendakaria EL MUNDO

«Jokalari garrantzitsu bat saltzea litzateke Athleticek egingo lukeen azkena»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

